


## *Begoña Arregi Onagoitia*

*Arrasate  
Gipuzkoa (1950)*

Aurkibidea

**Biografia**



Elorrion jaio zen 1950ean, baina Arrasaten bizi da eta irakasle da bertan. Umetan ikasitako haurkanta asko dakizki.

**Zintak**

**ARR-035**

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2007-03-05
- **Iraupena:** 65 min

- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Trojaola, Larraitz
- **Transkribatzailea(k):** Martiartu, Ane

## Pasarteak

### 1. Aurpegia laztantzeko kantua: "Katarramixon"

- **Erref:** ARR-035/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

#### Laburpena:

<p>Umea altzoan hartuta egiten zen. Hasieran, umeak ikasi arte, helduak umearen eskuak hartzen zituen eta aurpegia laztantzen zion abesti bat kantatuz: "Katarramixon, nun ixen? Gaztelun...".. Behin umeak kantua ikasten zuenean, heldua eta umea parez-pare jartzen ziren eta norberak bere aurpegia laztantzen zuen abestia jarraituz. Auzoan, taldean, denok borobilean jarrita ere, abesten zuten kantu hau.</p>

#### Transkripzioa

- Bego, uste dot zuk dakitzula hauxe: eta da helduan eskuak umearen aurpegitik pasatuta erabiltzeko, ezta? Hori zela, zela zan hori? Zela itten zan ta...

- Ba bueno, normalian umia altzuan hartzen zan, e? Eta orduan, bueno, horrela, ez?

"Katarramixo  
nun ixen,  
gaztelun,  
zertan,  
gaztaiña ta ogixa ekartzen,  
nun itxi,  
bentanan,  
nork jan,  
katuak,  
niri bapez,  
zapi-zapi-zapi-zapi"

Eta ya ikasten zauenian, ba, ya egiten zan espillu bezala, e? Umiak ikasten zauen, eta norberak be bai, eta orduan, hori, berriz errepikatu:

"Katarramixo  
nun ixen,  
gaztelun,  
zertan,  
gaztaiña ta ogixa ekartzen,  
nun itxi,  
bentanan,  
nork jan,  
katuak,  
zapi-zapi-zapi-zapi"

- Eta norberan aurpegixan eitten zan?
- Bai, ya bi eratara, ezta? Ume txikitxua, baiña gero ya, hori da, bazekienian, ispillu bezela, eta norbera.
- Biok: zuk alde batetik, eta berak zuri begiratuta...
- Bai, gero kuadrilla haundian be bai, egiten genuen, ba, auzokoak edo horrela.
- Borobillian jarri ta bakoitzak bere...
- Bai, pasatu aurpegitik eta hori, ba.

## 2. Gurdiarekin jolasean: "Kukurruku"

- **Erref:** ARR-035/003
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

### Laburpena:

<p>Gurdira, kabitzen ziren umeak, 6 edo 8 bat, igotzen ziren eta endaitzera edo pertikara (gurdiak aurrealdean, bertan abereak lotzeko, duten haga luzea) ume bakarra. Gurdian zeudenek pisu gehiago zuten, endaitzean zegoen umea altxatu egiten zuten. Goikoek, orduan, behekoiei oihu egiten zieten: "Kukurruku". Gurdian zeudenek erantzun: "Zer behar duzu?". Pertikan zegoenak nahi zuena erantzuteko aukera zuen: adibidez "Txokolatea". Gurdikoak: "Norentzako?" Pertikakoak, gurdian zegoen ume baten izena esan behar zuen. Izena esandakoan, gurdiko ume guztiak gurditik jaitsi, eta, pisurik ez zegoenez, pertika gainean zegoena beheratu egiten zen. Izena esandako umea zen endaitzera igotzeko hurrengoa. Gurasoek debekatu egiten zieten jolas hau arriskutsua zelako eta ezkutuan ibiltzen ziren. Gurasoen aurrean antzerako jolas bat egiten zuten, baina, gurdia erabili beharrean, zuhaitzetako enborrak erabiltzen zituzten. Auzoko ume guztiek elkarrekin jolasten zuten, adin desberdinetakoak nahasturik.</p>

## 3. Ume txikiekin altzoan

- **Erref:** ARR-035/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

### Laburpena:

Mantarreko umeekin (ume txikiekin) egiteko erabiltzen zen jolas hau. Umea altzoan hartuta, hankak gurutzatzen zitzaizkion abesti baten doinuak: "Txakolin, txakolin, txakolinak on egin...". Abestiaren jatorriaren inguruko azalpenak ere eskaintzen ditu.

#### 4. "Txalo pintxalo"

- **Erref:** ARR-035/005
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

##### Laburpena:

Txalo eragiteko kantua: "Txalo pintxalo..."

#### 5. Altzoan egiteko kanta: "Kukurruku, zer duzu?..."

- **Erref:** ARR-035/007
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:09:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

##### Laburpena:

Amagandik zuzenean jasotako abestia. Umea altzoan hartuta, helduak umea aurrera eta atzera mugitzen zuen abesti bat kantatuz: "Kukurruku. Zer duzu? Buruan min..."

#### 6. Eskuetan gauzak ezkutatzuz jolasean eta kantuan

- **Erref:** ARR-035/008
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:09:52. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

##### Laburpena:

Eskuetan zerbait (harri txikiak, ...) gordetzen egiten zuten jolasa. Zein eskutan gordeta zegoen asmatzeko abesti bat erabiltzen zuten: "Neskato txikixa, esaixu egixa...". Horrela, behin eta berriz, gordetakoa aurkitu arte. Aurkitutakoan, asmatzen zuenari egokitzen zitzaion orduan gauza gordetzea.

##### Transkripzioa

- Ta zein esan dozue, bestia, eskuena?  
- Bai, esku barruan zerbait gorde, adibidez, ba hori, harritxo bat, edo... ez?  
Eta gero, ba, horrela, aber, Arantxa:

"Neskato txikixa  
esaixu egixa  
jangoikuak esan du  
hementxe dagoela."

Aber? Bapez! Ostera ordun! Eta bueno, hori zan jolasa. Zerbait gorde, eta ba aurkitu arte. Eta aurkitzen zauenian, berak egiten zuen hori.

- Bai, hori ezagutzen neban joku hori, baiña kanturik barik. Kantua ez neban.... Ba hori ittiana baita: "nun da?"  
- A bai e?  
-Baiña kantua hori iñoiz entzun barik nekan.  
-Eta hori, ba, Jangoikua esan barik, ba, izena esaten dogu orain. Ba...  
"Begok esan du hementxe dagoela", ez? Edo "amamak esan du hementxe dagoela". Edo bueno.

## 7. Kaka nork egin duen salatzen duten haur-kantak

- **Erref:** ARR-035/010
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:12:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

### Laburpena:

Kaka usaina sumatu zutela adierazteko abestiak erabiltzen zituzten: "Maringo landetan, kukua kantetan.." eta "Ai Miguel, Miguel, errotapean..." . Abestietan ez zen zuzenean izenik aipatzen, baina kaka zeukana harrapatuta zegoela konturatzen zen.

## 8. Umetan gertatutako anekdota

- **Erref:** ARR-035/013
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Begoren auzoan ohitura handia zegoen belarrietatik oratu eta gora jasotzeko. Behin, auzoko batek jaso zuenean, esan zion itsasoa ikusiko zuela, eta bera ahalegin guztiak egiten ibili zen.

## 9. Gabonetako kantak

- **Erref:** ARR-035/015
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:19:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

### Laburpena:

<p>Gabonetan abesten zituzten kantak: "Gabon Gabonetan..." eta urtebarri egunean: "Urtebarri, barri...". Erregetan: "Errege, Errege..."</p>

## 10. Urdelardero eguna

- **Erref:** ARR-035/016

- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

#### **Laburpena:**

<p>Eskoriatzan berreskuratu egin da euren gurasoen eta euren gazte denboretako ohitura zaharra: Urdelardero Eguna. "Eguen Gizen" edo "Eguen Zuri" (Ostegun Gizen) egunean umeak eskean ateratzen dira bakoitza ziri luze batekin. Zirian, txorizo zati bat, ogi zati bat eta urdai zati bat sartzen dira. Gaur egun umeak auzoetara joaten dira eskean abesti bat kantatuz: "Urdeilardero, urdeixe janda bazkaixa gero..."</p>

### **11. San Nikolas eguna**

- **Erref:** ARR-035/017
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:23:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

#### **Laburpena:**

<p>Umetan Arrasaten ikasten zuenean urtero San Nikolas eguna ospatzen zuten. San Nikolas eguneko abestia gogoratzen dute.</p>

### **12. San Joan suaren inguruan kantatzen**

- **Erref:** ARR-035/019
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

#### **Laburpena:**

<p>San Juan suaren inguruan abesten zuten kantua: "San Juan, San Juan, arraultza bi kolkuan..." Eskoriatzan, baserri bakoitzak bere sua egiten zuen. Gainera, baserri bakoitzak bere belar santuak zituen sutara bota eta erretzeko. Elorrion, aldiz, auzoka egiten zen San Juan sua. Egun guztian zehar gauzak batzen egoten ziren ahalik eta su handiena egiteko.</p>

### **13. Marigorringoari kantatzen zitzaiena**

- **Erref:** ARR-035/021
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena:**

Amona mantangorri edo marigorringoarekin egiten zuten jolasa. Marigorringoa esku gainean jarrita galdetzen zioten: "Marigorringo, zurigorringo, bihar zer egingo? Euria ala eguzki egingo?" Marigorringoak hegan egiten bazuen eguzkia egingo zuela esaten zen eta aldiz, inora joan gabe eskuan gelditzen bazen, euria.

**14. Eskutik helduta kantatzeko kanta**

- **Erref:** ARR-035/023
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:29:55. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena:**

Kalera edo beste lekuren batera joan behar zenean kantatzen zuten abestia. Eskutik helduta, ilaran joaten ziren pertsona bat aurretik zela abesten: "Goazen, goazen baratzera..."

**15. Zotz egiteko kantak**

- **Erref:** ARR-035/025
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:32:43. **Bukatu:** 00:33:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena:**

Zotz egiteko eta banatzeko erabiltzen zituzten abestiak: "Dona, dona, katona. Sutondoan aitona..." eta "Don, don Kikilikon, hortxe dator don Ramon..."

**16. "Pagoka" jolasa**

- **Erref:** ARR-035/027
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:34:28. **Bukatu:** 00:35:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

"Pagoka" jolasa. Taldean jolasten zen. Talde guztia ezkutatu egiten zen eta bat gelditzen zen. Gelditzen zenak kontatu egiten zuen eta besteak ezkutatu egiten ziren bien bitartean.

**17. Zotz egiteko kanta: "Arriola, marriola..."**

- **Erref:** ARR-035/028
- **Iraupena:** 0:00:16. **Hasi:** 00:35:12. **Bukatu:** 00:35:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

**Laburpena:**

Banatzeko edo zotz egiteko erabiltzen zuten beste kanta bat: "Arriola, marriola, orratza zorrotza..."

**18. "Rekuerdoa"-k nola egiten zituzten**

- **Erref:** ARR-035/030
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:36:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

"Rekuerdoa" edo oroimena. Udaberri sasoian egiten zuten batez ere. Lurra pixka bat baztertzen zuten eta egindako zuloan loreekin koadro bat egiten zuten; gero, koadroa kristal batekin estali eta lurra jartzen zuten berriro ere gainean. Handik astebetera edo, bakoitza bere "rekuerdoa"ren bila joaten ziren.

**19. "Ainkes" jolasa**

- **Erref:** ARR-035/031
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:38:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

"Ainkes" jolasa. Lur zati bat lehiakideen artean banatzen zen. Iltze handi baten antzeko burni zatia bota eta hura lurrean sartu behar zen. Ondo sartzen zuena lur-zati haren jabe egiten zen eta lur-zati handienarekin geratzen zenak irabazten zuen.

**20. Orratzekin egiten zuten jolasa**

- **Erref:** ARR-035/033
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:38:44. **Bukatu:** 00:39:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Orratzarekin egiten zuten jolasa.

**21. Kromoak gordetzeko kaxak: "subekajia"**

- **Erref:** ARR-035/034
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:39:34. **Bukatu:** 00:40:46

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Kromoak gordetzeko kaxak: "subekajia". Kromotan ere jolasten zuten. Kromoak ahuspez edo beherantz begira jartzen ziren eta gero eskuarekin buelta eman behar zitzaion. Buelta emandako kromoak irabazi egiten ziren.

## 22. Tortolosen inguruko azalpenak

- **Erref:** ARR-035/035
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:40:46. **Bukatu:** 00:41:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Tortolos batzuk ardiarenak ziren eta beste batzuk ahariarenak. Ahariarenak gogorrak ziren eta hobeak. Tortolosak nolakoak ziren probatzeko haginek kontra kolpatzen zituzten. Tortolosak azazkalak margotzeko esmaltearekin margotzen zituzten.

## 23. "Txorro, morro..." mutilen jolasa

- **Erref:** ARR-035/037
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:44:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

"Txorro, morro, piku, kaio, ke". Garai batean mutilen jolasa izan zen neskek debekatuta baitzuten.

## 24. Neskek eta mutilek entretenimendu desberdinak

- **Erref:** ARR-035/038
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:44:33. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Nesken eta mutilen jolasak egoten ziren. Neskek eta mutilek aparte jolasten zuten eta aparte ibiltzen ziren eskolan. Mutilek baloia eta pilota asko. Mutilak errekarra joaten ziren eta neskak ez. Mutil guztiek igeri egiten zekiten eta neskek ez. Neskek inbidia ederra pasatzen zuten; desiratzen egoten ziren, baina ezin.

## 25. Bizkarrean eramatea: "arreburririxiko"

- **Erref:** ARR-035/040
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:46:28. **Bukatu:** 00:46:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Lexikoa

### Laburpena:

Bizkarrean eramatea: "arreburririxiko".

## 26. "Txintxaunean"

- **Erref:** ARR-035/042
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:47:10. **Bukatu:** 00:48:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

### Laburpena:

"Txintxaunean". Eurek egindako "txintxaun"etan ibiltzen ziren. Soka batekin eta zaku bat jarrita egiten zituzten, zuhaitzen adar baten edo habepetik pasatuta.

## 27. Txorokilekin jolasean

- **Erref:** ARR-035/043
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:48:04. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

### Laburpena:

<p>Helduek artaburuak urkuldu edo aletzen zituzten beheko suaren inguruan. Artaburua guztiz garbitzen zenean, hau da, hostoak, bizarrak eta aleak kentzen zitzaizkionean, txorokila gelditzen zen. Umeek txorokilekin asko jolasten zuten: etxeak, mendiak, dorreak, eta hainbat gauza egiten zituzten.</p>

## 28. Imajinazioa landuz, inguruko edozerekin jolasean

- **Erref:** ARR-035/044
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:51:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

### Laburpena:

Lehen panpinak kartoizkoak izaten ziren. Umetan zerekin jolasten zuten:

"muñekak" (panpinak) eta "katxarrotxuak"; zapatei lustrea emateko kaxak ziren euren lapikotxoak. Belarrak ere jateko desberdinak izan ohi ziren eurentzat. Inguruan zeuden baliabideak eta imajinazio handia erabiltzen zuten jolasteko.

## 29. Gaztaineekin egindako koroa eta soinekoak

- **Erref:** ARR-035/046
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:52:38. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Natura » Meteorologia

### Laburpena:

Gaztaina orriak erabiltzen zituzten koroak eta soinekoak egiteko. Gaztaina orria zabala zen eta zotz batzuekin lotzen zituzten. Loreekin lepokoak egiten zituzten. Sasiko marrubiak belar baten sartzen zituzten eta behin belarra beteta zegoenean, denak batera ahora eramanez eta jan egiten zituzten.

## 30. Ume-berbeta animaliekin; ardiei abesteko kanta

- **Erref:** ARR-035/050
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:59:18. **Bukatu:** 01:00:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

### Laburpena:

Umeen berbeta animaliekin: txakurra "toto", katua "mitxina", ardikumeari "bekerekea". Artalde bat ikusten zutenean abesten zuten: "Bekereke, ahuntzak umia jango nauke".

## 31. Aho-korapiloa

- **Erref:** ARR-035/053
- **Iraupena:** 0:00:18. **Hasi:** 01:04:10. **Bukatu:** 01:04:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

### Laburpena:

Aho-korapiloa: "Neskatilla, maratilla, ipurdixan korapilla".

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-09-11*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com